

Literatura unibertsala

- BATXILERGOA
- LANDIBE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKANTASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2014ko EKAINA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

2014 JUNIO

LITERATURA UNIVERSAL

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jarri behar duzula.

Aukera bakoitzean 4 galdera daude. Bakoitzaren puntuazioa honako hau da:

1. galdera: 3 puntu.
2. galdera: 2 puntu.
3. galdera: 3 puntu.
4. galdera: 2 puntu.

2., 3. eta 4. galderak testuari eta nahitaezko irakurketei dagozkie. 1. galdera, berriz, irakasgaiaren gainerako edukiei lotuta dago.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

En cada una de las opciones hay 4 preguntas. La puntuación de cada una de ellas es la siguiente:

- Pregunta 1: 3 puntos.
- Pregunta 2: 2 puntos.
- Pregunta 3: 3 puntos.
- Pregunta 4: 2 puntos.

Las preguntas 2, 3 y 4 se refieren al texto y a las lecturas obligatorias. La primera pregunta, en cambio, afecta al resto de los contenidos de la materia.

TESTUA

“Charles, etxe-bahimenduaren berriak aztoraturik, etxera itzuli zenean, Emma bertatik irten berria zen. Charlesek garrasi, negar, alditxar egin zuen, baina Emma ez zen itzuli. Non izan zitekeen? Felicite bidali zuen Homaisenera, M. Tuvacheren etxera, Lheurexenera, Lion d'Or-era, alde guztietara; eta, bere estularriaren etenguneetan, bere aipua deuseztaturik ikusten zuen, beren ondasuna galdurik, Bertheren etorkizuna birrindurik! Eta zergatik!... ezta txintik ere! Zain egon zen arratsaldeko seiak arte. Azkenik, gehiago ezin eutsirik, eta Emma Rouenera abiatua zela pentsatuz, errepidean barrena joan zen, legoa erdi bat egin zuen, inor ez zuen topatu, artean ere zain egon zen eta itzuli egin zen.

Emma itzulia zen.

—Zer gertatzen zen?... Zergatik?... Esplikaidazu!...

Emma bere idazmahaira eseri zen, gutun bat idatzi eta astiro zigilatu zuen, eguneko data eta ordua erantsiz. Ondoren solemnitetez esan zuen:

—Bihar irakurriko duzu; ordura arte, mesedez, ezidazu galdera bat bera ere egin!... Ez, bakar bat ere!

—Baina...

—Oh! utz nazazu!

Eta luze-luze etzan zen bere ohearen gainean.

Ahoan sentitzen zuen keru garratz batek iratzarri zuen. Charles erdikusi zuen eta berriro begiak itxi zituen.

Jakinguraz barrandatzen zuen bere burua, sufritzen ez ote zuen hautemateko. Baina ez! artean ezer ez. Entzuten zuen erlojuaren tiki-taka, suaren hotsa, eta Charles, bere etzanguaren ondoan zutik, arnasa hartzen.

—Ah! benetan gauza gutxi da heriotza! pentsatzen zuen. Loak hartuko nau, eta kito dena!

Ur hurrupa bat edan zuen eta hormarantz jiratu zen. Tinta zapore higuigarri hark segitzen zuen.

[...]

Eta goragaleak eman zion, hain supituan non doi-doi izan baitzuen astia burukopetik bere musuzapia hartzeko.

[...]

Gero Emma intzirinka hasi zen, motelki lehenik. Dardarizo handi batek astintzen zizkion sorbaldak, eta haren behatz kakuak tinkatzen ziren izarak baino zurikailago ari zen bilakatzen. Haren pultsua, desorekatua, ia sumaezinekoa zen orain.

Izerdia tantaka zerion, lurrun metalikoetako hasperen batean finkatua zirudien haren aurpegiari. Haren hortzak klasketaka ari ziren, haren begi handiagotuek uherkiro so egiten zuten bere ingurura, eta galdera guztiei ez zien erantzuten burua mugituz beste; irribarre ere egin zuen bi edo hirutan. Poliki-poliki, haren heiagorak ozenagoak izan ziren. Alarau helkor bat jalgi zitzaion; hobeto omen zihoala zioen, eta berehala jaikiko zela. Baina dardarizoez harrapatu zuten; eta oihukatu zuen:

—Ah! hau izugarria da, ene Jainkoa!”



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2014ko EKAINA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

2014 JUNIO

LITERATURA UNIVERSAL

A AUKERA

1. Azaldu itzazu Europako antzerki klasikoaren ezaugarriak, bereziki Ingalaterrako isabeldar antzerkiaren garapena kontuan izanik. Lotu ezaugarri horiek garai hartako testuinguruarekin. Aipa itzazu, gutxienez, garai hartako hiru idazle eta hiru lan.(3 puntu)
2. Identifika ezazu goian idatzitako pasartea zer obratakoa den, eta adieraz itzazu izenburua, egilea, nazionalitatea, literatura-generoa eta zer une historikotan kokatzen den. Aldi historiko hura kontuan izanik, adieraz ezazu zer eleberri motatakoa den obra, eta zein diren eleberri-genero hori definitzen duten ezaugarri nagusiak. (2 puntu)
3. Adieraz ezazu non erabiltzen duen testuan (leku batean edo gehiagotan) narratzaileak zeharkako estilo librea. Azaldu ezazu zertan datzan narrazio-prozedura hori eta zertarako balio duen. Zer eginkizun betetzen du prozedura horrek eleberri osoan? Prozedura hori eleberri horretakoa da bakarrik, edo beste eleberri batzuetan ere aurkitu daiteke? Arrazoitu zure erantzuna adibideren bat emanaz. (3 puntu)
4. Zer interpretazio ematen diozu Emmaren «Ah! benetan gauza gutxi da heriotza! Loak hartuko nau, eta kito dena!» esaldiari, emakume protagonistaren bizitzari eta nortasunari dagokienez? Ados zaude harekin? Argudia ezazu erantzuna zeure bizipenak eta eleberria irakurtzeak eragin dizun zirrara kontuan izanik. (2 puntu)

B AUKERA

1. Azaldu itzazu poesia surrealistaren ezaugarri nagusiak, koka ezazu bere testuinguru historikoan eta erlazioa ezazu surrealismoaren beste adierazpen artistiko batzuekin. Eman itzazu poesia surrealistaren bi egile adierazgarriren izenak. (3 puntu)
2. Identifikatu goiko pasartea zer obratakoa den, eta adierazi izenburua, egilea, nazionalitatea eta zer une historikotan argitaratu zuten. Une historiko hori kontuan hartuta, zer eleberri-generotakoa da? Argudia ezazu erantzuna, testuan errealitatea nola irudikatzen den kontuan hartuz. (2 puntu)
3. Pasarte horretan, emakume protagonistaren agoniaren hasiera ageri da. Kontuan izanik zer agertzen den pasartean eta eleberriaren azterketa egin zenueneko gogoraturik, zer jarrera hartzen du narratzaileak agonia horren deskripzioan? Eleberri osora zabaldurik, azter itzazu narratzailearen pertsonaia eta haren eginkizuna: nork eta nola kontatzen duen istorioa. Ezagutzen duzu beste narratzaile motarik? Zein? (3 puntu)
4. Eman ezazu zure iritzia emakume protagonistaren amaierari buruz. Uste duzu koherentea dela haren bizitzako jardunbidearekin eta eleberriaren planteamenduarekin? Beste era bateko amaierarik planteatu ote zitekeen? Argudia itzazu zeure erantzunak, eta erlazioa itzazu zeure bizipen eta iritziekin eta obraren irakurketak eragin dizun inpresio orokorarekin. (2 puntu)



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

LITERATURA UNIBERTSALA

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

OHARRA

- Oro har, puntu bat kendu ahal izango da (gehienez) ortografia-akatsengatik. Halaber, puntuak gehitu ahal izango dira, baldin eta adierazpena egokia, koherentea eta lotua bada.
- Ebaluazio-adierazle batzuei puntuazio jakin bat esleitu zaie. Hala ere, beste adierazle orokorrago batzuetan, puntuazio globala ematen zaio galdera osoari, eta zuzentzailearen gain uzten da bakoitzari zenbat puntu eman.

A AUKERA

1. galdera (3 puntu)

- Europako antzerki klasikoaren ezaugarriak azaltzea: 1 puntu.
- Ingalaterrako isabeldar antzerkiaren ezaugarriak zehaztasunez azaltzea: 1 puntu.
- Antzerkiaren ezaugarriak testuinguruarekin lotzea: 0,5 puntu.
- Garai hartako bi idazale eta bi obra, gutxienez, aipatzea: 0,5 puntu.

2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa...) identifikatzea: 1 puntu.
- Eleberri errealistaren ezaugarriak positibismoaren testuinguru historikoari lotuta azaltzea: 1 puntu.

3. galdera (3 puntu)

- Testuan zeharkako estilo librea erabiltzen dela identifikatzea: 0,75 puntu.
- Prozedura hori pertsonaien diskurtsoa irudikatze formen barnean modu egokian bereiztea: 1 puntu.
- Flaubert-ek baliabide hori pertsonaien analisi psikologikoan nola erabiltzen duen erakustea: 0,75 puntu.
- Zeharkako estilo librea beste obra edo autore batzuetan (gutxienez, batean) badela adieraztea: 0,50 puntu.

4. galdera (2 puntu)

- Iritzia koherenteki eta eskatutako gaia ardatz duela ematea.
- Iritzia argudio, adibide eta bizipen pertsonalekin indartzea.
- Gai izatea obraren ikuskera propio bat, ulertzailea, egituratzeko.
- Gai izatea irakurketak bere gustuen eta esperientzien arabera epaitzeko.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

B AUKERA

1. galdera (3 puntu)

- Erakustea badakiela zer den poesia surrealista: 1,5 puntu.
- Poesia surrealista abangoardien testuinguru historikoan kokatzea: 0,5 puntu.
- Surrealismoaren beste adierazpen artistiko batzuk (pintura, zinema) ezagutzea: 0,5 puntu.
- Bi egileren izenak aipatzea: 0,5 puntu.

2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa...) identifikatzea: 1 puntu.
- Nobela errealista positibismoaren testuinguru historikoarekin erlazionatzea, errealitatea irudikatzeko forma kontuan harturik. 1 puntu.

3. galdera (3 puntu)

- Agerian uztea *Madame Bovary* obrako narratzailearen ezaugarriak dena jakitea eta objektibotasuna direla. 2 puntu.
- Narratzailearen ezaugarri horiek proposatutako pasartean identifikatzea: 0,5 puntu.
- Gutxienez beste narratzaile mota bat (autobiografikoa, lekukoa...) ezagutzea: 0,5 puntu.

4. galdera (2 puntu)

- Iritzia koherenteki eta eskatutako gaia ardatz duela ematea.
- Iritzia argudio, adibide eta bizipen pertsonalekin indartzea.
- Gai izatea obraren ikuskera propio bat, ulertzailea, egituratzeko.
- Gai izatea irakurketak bere gustuen eta esperientzien arabera epaitzeko.